

IKUSMIRAN¹⁷

Nafarroa Garaiko langileriaren
lan eta bizi baldintzak

2024ko MARTXOA

17

Ikusmiran 17 | 2024ko martxoa

Nafarroa Garaiko langileriaren lan eta bizi baldintzak

Bilatzailea

ONDORIO NAGUSIAK.....	5
Nafarroako bi herritarretik bat egoera prekarioan dago	5
Enpleguak ez du bermatzen bizitza duina izateko diru sarrera nahikoak.....	5
Etxeko lanetara emanda zeuden gero eta emakume gehiagok egin du lan merkaturanzko igarobidea, lanaldi prekario bikoitzera behartuta.....	5
Egungo aberastasunaren birbanaketa ezak, ez du aukera berdintasuna bermatzen eta herritarren arteko ezberdinkeriak handituz doaz.....	6
LANGILEON LAN ETA BIZI BALDINTZEN AZTERKETA, EREMUZ EREMU	6
Lan merkatua gero eta prekarioagoa da	6
Zaintza lanak feminizatuta, prekarizatuta eta pribatizatuta	9
Pentsionistak erosahalmenean galera metatua urtez urte	12
Etxeetako kontsumoa behera, oinarritzko produktuetan gehiago gastatu arren	13
Aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuago, jendarte gero eta dualagoa.....	13
Gero eta herritar gehiago egoera zaugarrian.....	15
Etxebizitza, eskubide eskurazina.....	17
Osasun zerbitzu publikoa pribatizatzen ari dira, langileon lan baldintza eta zerbitzuaren kaltetan	19


ONDORIO NAGUSIAK

Nafarroako bi herritarretik bat egoera prekarioan dago

Bi herritarretik bat egoera ekonomiko prekarioan bizi da, enplegua eduki arren, bizitza duina bermatzeko diru-sarrera nahikorik gabe. Nafarroako 25 – 64 urte arteko biztanleriaren %50,3a, hain zuzen ere.

Adinean gora egiten badugu, pentsionisten %38,9ak 1.134€ edo baxuagoa den pentsioa jasotzen duten (2024ko otsailaren 1eko datuen arabera). Horietatik %53,7a emakumeak da; beraz, pentsio arrakala errealitatea bat da Nafarroan ere bai.

PREKARITATE INDIZEA NAFARROAN 2024



Langabeziak utzi dio lan merkatuaren zein enpleguaren adierazle izateari. Izan ere, azken urtean langabeziak %4,1 behera egin arren, langile klasearen bizi baldintzak okertuz doaz, enpleguaren kalitatea gero eta prekarioagoaren adierazle.

Enpleguak ez du bermatzen bizitza duina izateko diru sarrera nahikoak

Enplegua iadanik ez du bermatzen bizitza duinerako diru-sarrera nahikorik, zoritxarrez. Hori dela eta, ikusmira zabaltzea ezinbestekoa dugu enplegua eta lan baldintzen azterketa egiteari uko egin gabe.

Langabeziak behera egin arren, Gutxieneko Soldata edo baxuagoa duten gero eta herritar gehiago daude. Hau da, enplegua eduki arren, soldata prekarioak ugaritzen ari dira. Multzo honetan dauden herritarrak urtez urte ugaritzen ari dira.

Zaintza sektoreko langileen batez besteko soldata, Gutxieneko Soldataren azpitik kokatzen da bere osotasunean. Era berean, kontutan izan behar dugu estatalizazioak langileon lan baldintzak kaltetzen dituela. Izan ere, etxeko langileei Langile Estatutua aplikatzen zaie eta Nafarroako erresidentzietako langileek estatu mailako Lan Hitzarmena dute indarrean. LAB sindikatuaren ekintza sindikal eraginkorrari esker, aurki espero da Herrialde mailako Lan Hitzarmen berria sinatzea, soldata igoyerak aplikatuz.

Etxeko lanetara emanda zeuden gero eta emakume gehiagok egin du lan merkaturanzko igarobidea, lanaldi prekario bikoitzera behartuta

Azken urtean, emakume kopuru handi bat lan merkaturako igarobidea egin du. Zaintza lanen ardura nagusia bizkar gainean hartuta, bizi-unitatearen egoera ekonomikoak behartutako igarobidea izan dela pentsa liteke.

Ikusmiran honetan ikusiko dugun bezala, emakumeek lan merkaturako bizi duten egiturazko egoera prekarioa zein sektore feminizatueta lan baldintza kaxkarrak direla kontutan hartuta, emakumeek lanaldi prekario bikoitzerako igarobidea egiten ari da.

Egungo aberastasunaren birbanaketa ezak, ez du aukera berdintasuna bermatzen eta herritarren arteko ezberdinkeriak handituz doa

Bizi baldintza onak edo duinak eta prekarioak dituzten herritarren arteko arrakala handitzen ari da, jendartearen dualizazioan sakontzeko baldintzak etengabe birproduzitzen. Gero eta nafartar gehiago egoera zaugarrian dago eta etxeetako kontsumoa beherantz doa, erosketa poltsan gehiago gastatu arren. Egoera honen aurrean, oinarritzko eskubideak bermatetik urrun gaude, osasun zerbitzu publikoa pribatizatzen ari da eta etxebizitzara bideratzen dugu gure lan errentaren gero eta proportzio handiagoa, egoera zaugarrien iturburu bilakatuz.


LANGILEON LAN ETA BIZI BALDINTZEN AZTERKETA, EREMUZ EREMU

LAN MERKATUA GERO ETA PREKARIOAGOA DA

Afiliazioak gora egin du, egoera zaugarrian dauden kolektiboen artean bereziki

Afiliazioak gora egin du modu nabarmenean, Erregimen Orokorrean 247.053 langile zeuden afiliatuta batz best 2023ko abenduan Nafarroan. Irailean, hileko azken eguneko afiliatu kopuru maximoa lortu zen (248.111 afiliatu) eta antzerako balioetan jarraitzen dugu.

ERREGIMEN OROKORREKO AFILIZIOAREN BILAKAERA NAFARROAN (2020-2024)



Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, guk egina

GRAFIKA HONEN ESKALA MOLDATU BEHAR IZAN DUGU SARTU AHAL IZATEKO

Emakumea da lan merkaturako igarobidea egiten ari dena, modu nabarmenean


Azken urtean, 3.500 emakume gehitu dira lan merkatura, bereziki 55 urtetik gorakoak. Era berean, etxeko lanetara emanda zeuden 2.100 emakume gutxiago daude, lan merkaturako igarobidea egin dutenak, zaintza lanen ardurua nagusia euren bizkar hartuta.

Lan merkatuaren egoera orokorra eta, zehazki, sektore feminizatuen errealitatea ezagutzuz, pentsatzekoa da lan baldintza prekarioak dituen enplegua eskuratu dutela. Bizitzaren garestitzearen ondorioz, bizi-unitatearen egoera ekonomiko kaxkarrak behartuta egindako igarobidea da kasu gehienetan, emakumea lanaldi prekario bikoitzera behartuz.

Afiliazioaren %66,44a zerbitzuak sektorekoa da

Grafikoan ikus daitekeen bezala, zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia da nagusi Nafarroan eta joera handituz doa urtez urte. Modu honetan, 2009.urtean afiliazioaren %61,47a zerbitzuak sektorekoa zen bitartean, 2023an %66,44a izatera igaro da, 34.623 afiliatu gehiagorekin. Era berean, 10 emakumetik 6 zerbitzuak sektorean afiliatuta dago.

Aldiz, industria eta eraikuntza sektoreetan alderantzizko joera jazo da. Izan ere, Industria sektorearen afiliazio proportzioa 1,4 puntu jaitsi da, 7.535 afiliatu gehiago egin arren. Eraikuntza sektoreak, ordea, 6.053 langile galdu arren, afiliazioaren proportzioa ia ia erdira jaitsi da.




Beraz, lan baldintza prekarioak dituen zerbitzuak sektoreak afiliazioaren gorakada etengabea duen bitartean, herri baten garapenean estrategikoa den industria sektoreak pisua galtzen jarraitzen du.

Lan baldintza prekarioak kronifikatuta

Langileen lan baldintzen ezaugarrietan sakontzeko informazioa ere eskuratu dezakegu afiliazio datuak arakatur. Jarraian, esanguratsuenak bildu ditugu


- BEHIN BEHINEKO KONTRATUAK behera egin dute Nafarroan. Modu honetan, 2019.ko abenduan kontratuen %34,8a behin behinekoa ziren bitartean, 2023an %25,06ra jaitsi dira¹. Hala ere, azken hilabeteetan proportzioak aldera oso txikiak izan ditu (mugagabeak %74,94 – behin behinekoak %25,06²). Argi gelditu da, behin behinekotasunarekin amaitzera zetorren espainiar lan erreformak goia jo duela, ez baita gai lan merkatuko desoreka zuzentzeko.

BEHIN BEHINEKO KONTRATUEN GARAPENA




- Behin behineko kontratua duten langileen gehiengoa, hau da %56,91a, emakumea da. 2009.urtetik hona kontratu mota honen gizon-emakume proportzioa irauli egin da. Izan ere, 2009an behin behineko kontratuen %51,05 gizonetakoek zuten bitartean, 2024an %43,09a izatera pasa da behin behineko kontratua duten gizonen proportzioa. Iraultza hau, ordea, emakumeen kaltetan jazo da, 2009.urtetik hona behin behineko kontratua duten emakumeen proportzioa 7,96 puntu igo baita.

BEHIN BEHINEKO KONTRATUEN GARAPENA Emakume/Gizon proportzioa



1 BAI, 2023ko 3.hiruhilabetea
2 SEPE, 2024.urteko otsaila

- **ALDIZKAKO KONTRATU FINKOAK** dira proportzionalki gehien igo direnak azken urtean, mugagabeak %3,9 igo diren bitartean, aldizkako finkoak %6,66 igo baitira. Kontratu mota hau emakumezkoen artean zabaldago dago: emakumeen kontratuen %5,33 aldizkako finkoa da, gizonezkoen artean, aldiz, %3,37a
 - Udaldian aldizkako kontratu finkoen etete masiboak aipamen zehatza egitea merezi du. Izan ere, 2023ko maiatzean 12.221 langile ziren aldizkako kontratu finkoa zutenak, uztailean, aldiz, 7.974 langile. Emakumeen artean, maiatzean 7.380 izatetik, 3.995 izatera pasatu ziren uztailean. Beraz, udan zehar kontratu gabe geratu ziren %80a baino gehiago emakumeak ziren.



- **LANALDI PARTZIALEAN** dauden 3 langiletik 2 emakumea da.
 - 2023ko abenduan, hileko batz besteko afiliatuen artean %18,76ak zuten jardunaldi partziala. Emakumeen artean, aldiz, %26,79ak du lanaldi partzialeko kontratua.
 - Lanaldi osoko kontratua gizonen %78,55ak duen bitartean, emakumeen %56,85ak soilik du.
- **SOLDATA ARRAKALA.** Emakumeen gehiengoaren zerbitzuak sektorean lan egiten duenez, industria edo eraikuntza sektoreetan baino soldata baxuagoa izango du. Gizonezko baten batez besteko urteko soldata 30.596€koa den bitartean, emakumearena 24.446,6€-koa da. Beraz, soldata arrakala 6.150€koa da; batez beste, emakumezko batek gizonezkoek baino %20,1 gutxiago kobratzen du zerbitzuak sektorean ³

Langabeziak enpleguaren kalitate adierazle izateari utzi dio

Hego Euskal Herriko langabezia tasa %7koa da; Nafarroakoa, aldiz, %9,3koa (2023ko IV.hiruhilabeteko datuak). Emakumeen langabezia tasa (%11), gizonezkoena baino altuagoa da (%7,8); beraz, langabeziaren jaitsiera emakumeen bizkar gertatzen ari dela esan daiteke. Era berean, 2019.urtetik 2023 urtera iraupen luzeko langabetuak %38,37 igo dira, hau da, urte bete edo gehiago lan bila dabiltzan herritarren kopurua.

ZAINTZA LANAK FEMINIZATUTA, PREKARIZATUTA ETA PRIBATIZATUTA

Zaintza lanetan emakumea da gehiengoaren, non lan baldintza prekarioak nagusi diren eta zerbitzuaren pribatizazioa etengabea den. Hego Euskal Herriko azterketan azpimarratu bezala, zaintza lanen egoera egiturazkoa da, sistema kapitalistak zaintza lanak kapitala metatzen jarraitzeko baliatzen baititu. Beraz, Nafarroan egoera hau birproduzitu egiten da.

Zaintza sektoreko enpleguetan, 10etik 9 emakumea da

Zaintza lanen sektorea helduen egoitzak, aniztasun funtzionaleko zein esku-hartze sozialeko zentroetako langileak, etxez- etxe laguntza zerbitzua eta etxe langileek osatzen dute; eta langileen %90a emakueak dira. Etxeko langileen kasuan, emakumeak %95,8a dira.

Zaintza lanetan lan baldintza prekarioak nagusi

Zaintza sektorea emakumea gehiengoa den zerbitzuak sektorean kokatzen da, zerbitzuetan lan baldintza kaxkarragoak dituztela kontutan hartuz, sexu-generoaren arabera arrakala gehitu behar zaio. Ondorioa, zaintzak lan profesionalak prekarizatuta daudela. Lan merkatuaren azterketan kokatu ditugu datuak.

Helduen egoitzen %97,2a pribatua da

Epe ertainean izango dugun errealitatearen hurbilpen bat egiteko, demografiari begiratu emango diogu. Biztanleria zahartuz doa eta zainduak izateko beharra duten herritar kopurua handituko da datozen urteetan.

- Azken 20 urtetan, 65 urte baino gehiago duten herritarren kopuruak %30,6 egin du gora (egun 134.844 nafartarrek dute 65 urte baino gehiago)
- Pertsona bakarreko etxebizitza kopuruak %17,3 egin du gora azken 7 urteetan eta nagusiki alargunak dira bakarrik bizi direnak.


Ikusteke dagoena da zaintza beharren areagotzeari nola erantzungo dion Babes Sistema publikoak, egun pribatizatua dagoen sektorea izanik, zainduak izateko herritar orok izan beharreko eskubidea eta horretarako aukera berdintasuna ukatzen baitu.

- Nafarroan dauden 72 zahar egoitzetatik, soilik 2 dira publikoak, hau da erresidentzia guztietatik soilik %2,8 da publikoa.
- Pertsona helduentzat 6.000 plaza eskaintzen dira Nafarroan, horietatik erdia Gobernuarekin itaunduta daude. Beraz, 3.000 pertsonak kuota bere osotasunean ordaindu behar dute eta beste erdiak diru-laguntza bidez proportzio bat jasotzen dute menpekotasun mailaren eta dotizten diru-sarreraren arabera dena.

BIZITZA GERO ETA GARESTIAGOA

Azken bi urteetan Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) izaniko igoerak, eguneroko bizitzarako oinarrizko produktuen garestitzea ekarri du. Nafarroan, urte betean inflazioa %2,9 igo da, 2023ko abenduarekin alderatuz, %0,5 behera egin arren.

KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA, 2020-2023. NAFARROA GARAIA




KPI-aren araberako soldata igoerarik ez

Negoiazio kolektiboan, soldata igoera aurreko urteko KPI-aren araberakoa izatea aldarrikatzen du LAB sindikatuak. Bada, jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeen bezala, Nafarroan 2023an batazbeste adostu ziren %4,1eko soldata igoerak, 2022ko KPI-aren azpikoak izan ziren (2022ko abenduko urtearteko batezbesteko KPI-a 6,4koa izan baitzen).

Urteetan atzera egiten badugu, KPI-aren hazkundea txikia edo negatiboa den urteetan, langile borrokari esker, soldata igoerak KPI-aren gainetik kokatu ohi dira. Bitzta gero eta garestiagoa den garaietan, KPI asko handitu den garaietan, aldiz, patronalak soldata igoera zaildu egiten du, langileon lan eta bizi baldintzen kaltetan.

SOLDATA IGOERA ETA KPIA (NFE)




Iturria: INE eta Espainiako Estatuko Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioa

Soldata igoerak baloratzerako orduan, kontutan hartu behar dugu, grafikoetara eraman ditugun adosturiko soldata igoerak Lan Hitzarmenean jasotakoak direla; beraz, Hitzarmen estaldurarik gabeko langileak kanpo kokatzen dira. Pentsatzekoa da, Hitzarmen Kolektiborik gabe, lan baldintzak, oro har, kaxkarragoak izango direla.

Nafarroa Garaian, afiliazioaren %41,19a dago Lan Hitzarmen baten estaldurapean.

HITZARMENEN ESTALDURA NAFARROAN Langile kopurua, hitzarmen motaren arabera (2012-2023)



Iturria: Nastat eta Espainiako Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa


*2022 eta 2023ko datuak probisonalak dira

2024.urterako pentsioak, 2023.eko abenduko KPI-aren urtearteko batzbestekoarekin eguneratu ziren. Abenduko urte arteko KPI-a %3,1ekoa izan zen eta 2024.urterako pentsioak %3,6 igo ziren.

Pentsioen azken erreformak KPI-a erreferentzia gisa besterik ez zuen kokatu, pentsioen eguneratzea Gobernuaren erabaki politikoen menpe utziz. Modu honetan, espainiar Gobernuak 2024rako pentsio kontributiboak %3,6ean eta ez kontributiboak %6,8a eguneratu zituen, lehena KPI-aren ia pareko eta bigarrena gainetik (2023ko KPI-aren urtearteko batezbestekoa %3,1ekoa izan baitzen).

Jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeen bezala, 2011.urtetik KPI baxu edo negatiboa kokatu denean, pentsioak goitik eguneratzeko joera dago. Aldiz, bizitza garestiagoa den garaietan, kontrakoa gertatu ohi da.


PENSIOAK ETA KPI, BILAKAERA (2011-2024, %)



Pentsionistek azken urteetan erosahalmenean izaniko galera erreala aztertzeko, ordea, bizitzaren garestitzea urteetan zehar pilatu egiten dela ulertu behar da. Izan ere, urte hasieran markagailua ez da 0-tik abiatzen eta oinarriko produktuei aplikatzen zaien prezio igoera, aurreko hilabeteko prezio altuari gehitu behar zaio.

Hori dela eta, jarraian ikus daitekeen grafikoan, 2011.urtetik metatu den KPI eta pentsioen bilakaera gurutzatu ditugu. Bi marren artean gelditzen dena da pentsiodunek 2011.urtetik gaur arte galdu duten erosahalmena.


PENSIOEN ETA EROSAHALMENAREN BILAKAERA (2011-2024)



ETXEETAKO KONTSUMOA BEHERA, OINARRIZKO PRODUKTUETAN GEHIAGO GASTATU ARREN

Etxeetako kontsumo gastuak BPG-arekiko nabarmen egin zuen behera pandemia betean (2020.urtean %58,5), ustez, harturiko salbuespenetzko neurrien ondorioz. 2022.urtean, ordea, kontsumoa ez da erreperatu, pandemia garaiko balioetatik behera kokatzen da, %58,1ean. Beraz, joera honen arrazoiak sakonagoak dira:

- Batetik, KPI-aren igoerak, oinarrizko produktuak etengabe garestitu ditu
- Bestetik, KPI-aren araberako soldata edo pentsio igoerarik egon ez denez, herritarrok produktu bera eskuratzeko, gehiago gastatu behar dugu.
- Pandemia garaian aurrezturikoa gastatuz doa, eguneroko bizitzara bideraturiko gastuetan, kasu gehienetan.



Bizi unitatearen egoera sozioekonomikoak behartuta, kontsumo ohiturak aldatu dira. Aldaketa horien atzean, pentsatzekoa da ez dagoela herritarren erabaki burujabea, osasun nahiz arrazoi ekologikoak tarteko, baizik eta testuinguru sozioekonomiko kaxkarrak beharturiko gertaera bat.

2022.urtean Nafarroako bizi-unitate bakoitzak, batz bestea, egiten zuen kontsumoa kontutan hartuta, kontsumoaren zatirik handiena *etxebizitza, gasa, elektrizitatea, ura eta bestelako erregaietara* bideratzen da (%32,48a, hain zuzen ere) eta %16,87a *elikagai eta edari ez-alkoholdunetara*.

ABERASTASUNAREN BANAKETA GERO ETA DESOREKATUAGO, JENDARTE GERO ETA DUALAGOA

Gini indizea

Herralde bateko biztanleriaren artean errentaren banaketan dauden ezberdintasunak neurtzen ditu GINI indizeak. 2008. urtetik izaniko bilakaera aztertzen dugunean, krisialdi garaietan GINI indizearen balioa altuagoa dela ikusiko dugu, herritarren arteko ezberdintasunak handitzen direlako. Zergatik? Bada...

Batetik, egoera zaugarrian dauden herritarrak direlako krisialdiaren ondorio kaltegarrienak pairatzen dituztenak.

Bestetik, krisialdi testuinguruan harturiko erabakiek herritarren beharrak zuzendu beharrean, kapitalaren interesak babesten dituztelako

Bizitzaren garestitzea etengabea den azken bi urteetako daturik ez badago ere, pentsatzekoa da ezberdintasunak areagotu egin direla.

GINI INDIZEAREN BILAKERA 2015 -2023 (NAFARROA ETA EUROPAR BATASUNA)																
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Nafarroa	27,2	28,7	30,5	29,9	30,3	28,3	28,1	26,2	27,7	26,5	24,7	24,3	27,3	28,7	30	30,1
EB-27	31	30,6	30,8	30,8	30,5	30,5	31	31	30,8	30,6	30,2	30,6	30	30,2	29,6	

Iturria: NASTAT, Eurostat, INEren Bizi baldintzei buruzko Inkesta

S80/S20 koefizientea

Koefiziente honek, soldatan dauden ezberdintasunak neurtzen ditu, soldata baxuenak eta altuenak dituzten herritarren arteko erlazioa aztertuz. Modu honetan, 2021.urtean diru sarrera altuenak dituzten herritarren %20ak, diru sarrera baxuenak dituen biztanleriaren %20ak baino 5,5 aldiz errenta altuagoa du.

S20/S80 RATIOAREN BILAKERA, 2010 - 2021(NAFARROA ETA EUROPAR BATASUNA)															
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	
Nafarroa	4,7	4,8	4,5	4,9	4,8	4,6	4,4	4,1	3,8	4,5	5,1	5,4	5,4	5,5	
EB-27	5	5	5	5,2	5,2	5,2	5,1	5,1	5,1	4,9	5	4,7	4,74		


Iturria: Eurostat, INEren Bizi baldintzei buruzko Inkesta

BPGarekiko soldatek duten pisua Europar Batasunaren batezbestekoaren oso azpitik

Aberastasuna banatzeko tresna garrantzitsuenetakoa soldata da. Jarraian, BPG-arekiko soldatek duten pisua aztertuko dugu, hau da, sortzen den aberastasuna soldaten bidez banatzen den proportzioa.

2011.urteetik soldatek ez dute BPG-ean zuten pisua berreskuratu (2020.urteko sindemia ez-ohiko egoera salbuetsita) eta beheranzko joera nabarmena da. Izan ere, Nafarroan 2011.ean soldatek BPG-arekiko %45,6eko pisua zuten, 2022an, aldiz, %42,9a. 2011.urteetik soldatek BPG-arekiko galdu duten pisuaren proportzioa Hego Euskal Herrian (3,3 puntu) zein Nafarroan (2,7 puntu), Europar Batasunaren batz bestekoak galdutakoa (0,2 puntuko jaitsiera) baino handiagoa izan da.

SOLDATEK BPG-EAN DUTEN PISUA




EREMU HONETAKO ADIERAZLENTZAT ESKALA TXIKIAGOKO GRAFIKOA EGIN DUGU, MODU ARGIAGOAN IKUSI AHAL IZATEKO

Iturria: Eurostat, Nastat eta Eustat, guk egina

GERO ETA HERRITAR GEHIAGO EGOERA ZAURGARRIAN

Gauza jakina da sindemiaren ondorioek Nafarroako ezberdintasun sozial eta ekonomikoak handitu zituztela, bereziki egoera zaurgarrian dauden kolektiboen artean. Pobrezia eta bazterketa sozialeko arrisku tasak sindemia aurreko balioak baino altuagoak dira; beraz, ez-ohiko egoera "gainditu" ondoren, pobrezia eta bazterketa sozialeko arrisku tasa handitu egin da, egiturazko egoera bilakaturik. 2023.urtean 2018.ean baino herritar gehiago daude egoera zaurgarrian. Jarraian, egoera honen adierazle nagusienak bildu ditugu:



Adierazle bakoitzak esanahaia birgogoratu...

- Pobrezia edota bazterketa sozialerako arrisku tasaren arabera (AROE adierazlea deritzona), 2023.urtean, nafarroako biztanleriaren %17,2a pobrezia edota bazterketa sozialerako arriskuan bizi zen, 116.634 herritar, hain zuzen ere. 2018. urtetik 4,1 puntu egin du gora.
- Biztanleriaren %13,8a aldiz, pobrezia arriskuan bizi zen Nafarroan 2023.urtean. Hau da, 93.578 nafar bizi ziren errenta medianaren %60ko diru-sarrerekin, urteko 10.989€ko diru-sarrerekin.
- Lan intentsitate baxuko etxebizitzak neurtzen du enplegurik gabe edota lan egiteko adinean daudenek urtean bere gaitasunaren %20a baino gutxiago lan egin duten etxebizitzatan bizi diren herritarren tasa. Nafarroaren kasuan, 2023. urtean %7,9koa zen tasa, 2018. urtekoaren pareko.
- Gabezia sozial edo material larriaren daudela kontsideratzen da, 13 kontzeptuetatik 7etan gabezia adierazi dutenak. Hurrengo puntuan modu zehatzagoan landuko badugu ere, azken 5 urteetan 1,8 puntu egin du behera.

Gabezia material eta sozial larria Nafarroan

Agenda 2030-ari egokitzeko metodologia aldaketak, errealitatean aldatzen ari denari buruzko zantzuak eskaintzen dizkigu. Izan ere, egoera zaugarrian gero eta herritar gehiago dago, eguneroko bizitzako gero eta eremu zabalagoetan ditugun gastuei aurre egiteko zailtasunekin.

Modu honetan, Nafarroa Garaian, biztanleriaren %5,6a zegoen gabezia material eta sozial larrian (emakumeen artean %6,5 eta gizonen artean %4,6a). Zaugarritasuna eremu berrietara zabaltzen ari da, emaitza nagusiek baieztatzen duten bezala. Jarraian, gabezia materiala duten etxebizitza unitateak kontzeptuen arabera:

GABEZIA MATERIALA DUTEN ETXEBIZITZA UNITATEAK KONTZEPTUEN ARABERA

%26,1ak




aurreikusi-gabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna

%22,6ak



ezin du oporretara joan, gutxienez urtean astebetez

%17,2ak




apurtutako edo zaharkituriko altzariak ordezkatzeko ezintasuna dute

%12,9ak



etxebizitza temperatura egokian mantentzeko ezintasuna du




%10,8ak

Azken urtean etxebizitza nagusiaren gastuetan (hipoteka, alokairua, gasa, komunitatea...) edota epekako erosketatan atzerapenak izan ditu

ETXEBIZITZA, ESKUBIDE ESKURAEZINA

Etxebizitzaren prezioa etengabe garestituz doa

Etxebizitza prezioaren indizeak adierazten du etxebizitza berri edota bigarren eskukoaren prezioak izaniko bilakaera. Grafikoan, 2015.urtea abiapuntutzat hartu dugu, 2023. urtera arte prezioek izaniko igoera argi eta garbi ikus daiteke.




Etxebizitza librearen metro karratuaren prezioa gero eta garestiagoa⁵:

Etxebizitza librearen prezioa 1605,3€/m²-koa da Nafarroan, 2023an %3,8a garestitu zen aurreko urtearekiko. 2015.urtetik, %20 garestitu da.

Herralde osoa kontutan hartuz, Iruñea da m²-a garestien duen eskualdea (2.239,7€/m²) eta Tuter merkeena (1.186€/m²)

- Iruñean, 2023-2022 urteen artean %0,2a igo zen m²-aren prezioa, 2015.urtetik, ordea, %48,5eko igoera izan du.
- Tuteran, aldiz, %3,7 garestitu zen etxebizitza librearen m²-aren prezioa, 2015.urtetik %30,7a garestituz.



Hipoteka kopuru behera, hipoteken batuz besteko zenbatekoa gora

Langile klaseak gure lan errentaren zati handiena etxebizitza gastuetara bideratzen dugu. Zentzu honetan, eragin handia du gastu honek bizi unitateen eguneroko gastuetan. Era berean, etxebizitzaren prezioan jazotzen diren gertaerek, etxebizitza erabakietan eragin zuzena du, jarraian bildu ditugun datuen arabera. Izan ere, hipoteken garestitzeak, hipoteka kopuruaren murrizketa ekarri baitu:

- Nafarroako jabetza-erregistroetan inskribatutako etxebizitzaren gainean eraturako hipoteken kopuruak behera egin zuen %22,1a 2023ko abenduan, pasa den urteko abenduarekin alderatuz; %19,4a aurreko hilabetearekin alderatuz.
- Hipoteken batuz besteko zenbatekoa 2023ko abenduan 152.158€koa izen zen, 2022ko abenduan baino %21,8 handiagoa.
- Etxebizitzaren gaineko hipoteka kopuruak, aldiz, beherantz egin du. 2023. urte osoa hartuta, 4.595 hipoteka zeuden, 2022. ean baino %12 gutxiago. Era berean, eta 2023. urte osoko datuak kontutan haruta, maileguan utzitako kapital osoa 2022. ean baino %10,7 baxuagoa izan zen.

Etxebizitzaren salerosketa jaitsi da

Etxebizitzaren salerosketa %12,2 jaitsi zen 2023ko abenduan, pasa den urtearekin alderatuz. 2023. urtean zehar, salerosketaren jaitsiera %4,1ekoa izan da.

- *Etxebizitzaren babes-erregimena kontutan hartuz*, 2023an salerositako etxebizitzaren %90,4a libreak izan ziren, 2022arekin alderatuz, %1,4 jaitsi da etxebizitza libreen salerosketa eta %23,6 babestutako etxebizitzarena.
- Etxebizitzaren egoera aztertuz, 2023. urtean zehar salerositako etxebizitzaren %63,5a erabiliak izan ziren. Etxebizitza berrien inguruko eragiketak %10,4 igo ziren 2022arekin alderatuz, etxebizitza erabilien kasuan %10,8a jaitsi ziren bitartean.

2020an baino 135€ gehiago bideratzen ditugu hilabetero alokairua ordaintzera, soldata garbiaren %46a

2022. urtean alokairuaren prezioa 10,39€/m² izanik, 80 metro karratuko etxebizitza baten kasuan, alokairuaren urteko prezioa 9.974€ dira, 831,16€ hileko.

- Urteko soldata garbia 25.060€ izanik, hilabeteroko soldata garbia 1.790€ litzateke (urteko soldata 14 pagatan banatuta). urtean soldata garbiaren %40a bideratzen dugu alokairura
- Beraz, hilabeteroko soldata garbiaren %46a bideratzen da alokairura batez beste Nafarroan

12.ikusmiran-en mahai gaineratu genituen datuen arabera, 2020. urtean soldata garbiaren %37,74 bideratzen genuen alokairura. Beraz, bi urtetan ia 10 puntu egin du gora alokairura bideratzen dugun soldata garbiaren proportzioak.. Beste modu batera esanda, 2020. urtean baino 135,16€ gehiago bideratzen ditugu alokairura hilabetero.

Nafarroako biztanleria pobreaken %60ak du etxebizitza gastu altua

Etxebizitza ordaintzeko, izan alokairuan edota jabetzan eskuratzeko, soldataren gero eta proportzio handiagoa bideratzen dugu herritarrok. Era berean, soldata arrakalak honetan ere sortzen ditu ezberdinkeriak. Izan ere, lan errenta baxuenek etxebizitza gastu altuagoak dituzte, eta alderantziz. Arope Informean jasotako datuen arabera, errenta baxuenek dituzten etxebizitza gastu altuen ondorioz, bestelako oinarrizko beharriaz aurre egin ezinik daude.

Etxebizitza gastu altua, errentaren %40tik gora etxebizitza gastuetara bideratzea kontsideratzen du aipatu Arope Informea edota Nafarroako Gazte Kontseiluak. 2008. urtean biztanleria pobreaken %48,5ak etxebizitza gastu altua bazuen, 2022. urtean %60ak du gastu altua.

OSASUN ZERBITZU PUBLIKOA PRIBATIZATZEN ARI DIRA, LANGILEON LAN BALDINTZA ETA ZERBITZUAREN KALTETAN

Osasunbidearen ohiko jarduera pandemia aurreko egoerara itzultzetik urrun dago. Izan ere, pandemia garaian harturiko ez-ohiko hainbat neurri mantendu eta egiturazko bilakatu dira.

- Itxaron zerrendak gero eta luzeagoak izatea horren adibide garbia da. 2019.urtean itxaron zerrendetako pazienteen %63a hitzorduaren zain zegoen bitartean, 2022.urtean %77a izatera pasa dira.
- Kanpo kontsultetan, itaundutako zentroetara bideratzen den jarduera %58,72a igo zen 2019tik 2022ra, Osasunbidearen beraren jarduera propioa %5,28 jaitsi zen bitartean. 2019tik 47.324 kanpo kontsulta gutxiago egin dira, %5a gutxiago.
- Osasunbideak ez du egindako diagnosi-proba guztien datu estatistikorik eta kontrol falta horrek 2022.urtean 54.000 proba externalizatzea edo azpikontratatzeari ekarri zuen (2019an baino 14.000 gehiago).

Osasunbideak itxaron zerrendak murriztera bideraturiko diruaren %30a pazienteak itaundutako zentroetara bideratzen gastatu zuen.

Nafarroako Comptos Ganberaren arabera, Nafarroako Sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko zein finantzarioaren fiskalizatzailea denaren arabera, Osasunbideak 2018 eta 2022 artean 21,32 milioi gastatu zituen itxaron zerrendak murrizteko. Aipatu dirua nora bideratu zen aztertzen badugu, arazoari egiturazko irtenbidea eman beharrenean, interes ekonomiko jakinen baitako "partxeak" jarri zirela ondorioztatzen dugu:

ITXARON ZERRENDAK MURRIZTERA BIDERATURIKO DIRUAREN ERABILERA Osasunbidea, 2018-2022

